

DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

**ETXEBIZITZA ETA BULEGOAK ERAIKITZEAN INGURUMEN
HOBKUNTZAK ETA GENERO IKUSPEGIA TXERTATZEKO
ORDENANTZA**

Hasierako onarpena: 19.03.13ko Ohiko Osoko Bilkuran.

BAOn argitalpena: 19.03.26, 59 zk.


http://www.bizkaia.eus/lehendakaritza/Bao_bob/2019/03/26/II-1053_eus.

Alegazioak: EZ.

BAOn argitalpen osoa: 19.05.24, 98 zk.

http://www.bizkaia.eus/lehendakaritza/Bao_bob/2019/05/24/II-1950_eus.

Indarrean sartu den data: 2019ko ekainaren 15a.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

ZIOEN AZALPENA

2002an, Durangoko Udalak iraunkortasunaren aldeko Aalborgeko Gutuna sinatu zuen, eta, 2004an, sinadura bere horretan berretsi. Urte hartan bertan, Hiri eta Herri Iraunkorrei buruzko Europako IV. Biltzarra antolatu zuten, Aalborg + 10, eta Aalborgeko konpromisoak onartu zituzten. Besteak beste, honako hauek onartu zituzten:


- Diseinua eta eraikuntza iraunkorrak izateko eskakizunak ezartzea eta kalitateko arkitektura sustatzea, teknologia berriak sustatuz.
- Oinarrizko energien kontsumoa murriztea eta energia garbiena ehunekoa handitzea.
- Hondakinak ez sortu edo gutxiago sortzea eta gehiago birziklatzea.
- Klimaren aldaketari aurrea hartzeko politikak eta ekimenak prestatu eta gauzatzea eta ingurumenari kalte gutxiago egitea.

Horrekin lotuta, 2015ean, Nazio Batuen Batzar Orokorrak aho batez onartu zuen Garapen Iraunkorrerako 2030erako Agenda. 2030erako Agendaren bidez, giza garapena hobetzera zuzendutako ekintza-plan unibertsala, integrala eta eraldatzailea ezartzen da, izaera iraunkorra duena arlo sozialean, ekonomikoan eta ingurumenarekin lotutakoan, Garapen Iraunkorreko Helburuak txertatuz. Ezarri diren Garapen Iraunkorreko 17 Helburuen artean, eta Garapen Iraunkorreko hiru dimentsioak (soziala, ekonomikoa eta ingurumenarekin lotutakoa) hartzen dituztenen artean, helburu hauek ditugu:

- 5. helburua: genero-berdintasuna lortzea eta emakume eta neskato guztiak ahaldundutzea.
- 6. helburua: uraren eta saneamenduaren disponibilitatea eta kudeaketa iraunkorra bermatzea.
- 7. helburua: energia eskuragarri, fidagarri, iraunkor eta modernorako sarbidea bermatzea.
- 11. helburua: Hiriak inklusiboak, seguruak, erresilienteak eta iraunkorrak izan daitezen lortzea.
- 13. helburua: Aldaketa Klimatikoari aurre egiteko neurriak hartzea.

Durangoko Udalak, garapen iraunkorra garatzeko helburuarekin, eta Agenda 21 Planak orduan (2007-2021) zehazten zituen arauarekin, 2007an, Eraikinen eta Bulegoen Eraikuntzan Ingurumena Hobetzeko Araudia onartu zuen. Araudi horrek, aitzindaria orduan, eraikuntza iraunkorra pixkanaka ezartzeko lehen pausoa eman nahi izan zuen. Helburu horietarako, erabilera nagusia bizitegi-erabilera edo bulego-erabilera duten Durangoko eraikin berrietarako edo gutizko zaharberritzeetarako araudia ezarri zen.

Lehen pauso horrek, txikia izan arren ere, hainbat eskakizun zituen bere baitan eta une haietan, zenbait aldaketa txertatu zituen Durangoko eraikinen eraikuntzan. Horrela, zenbait arlo txertatu ziren: energia-eraginkortasuneko neurriak hartzea Eraikuntzaren Kode Teknikoarekin bat etorriz (isolamenduak hobetzea, galdara kolektiboak derrigortzea, energia iraunkor sortzaileak ezartze eta abar), uraren kontsumoarekin



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

lotutakoak (ureztaketa-sistema iraunkorragoa eta ura aurrezteko sistemak txertatzea), eta mugikortasun iraunkorrarekin lotutakoak (bizikletak uzteko lekuak). Zalantzarik gabe, neurri horiek hartzeak aldaketak ekarri ditu ez soilik eraikinen eraikuntzaren diseinuan, baita erabiltzaileen ohituretan ere: Durangon mugitzeko bizikletaren erabilera handitzea.

Araudia onartu zenetik, nazioarte mailan eta udalsarea 21en (udalerrri jasangarrien euskal sarea) bidez Euskadin onartutako Garapen Iraunkorreko Helburuei esker, ingurumen-izaera soilik duen araudia modu osoagoan osatu ahal izango da izaera sozialeko Garapen Iraunkorreko Helburuak ezarri, eta zehatzago, genero-ikuspegia txertatuz.


Hori dela eta, Etxebizitzak eta Bulegoak Eraikitze Ingurumena Hobetzeko Araudiari genero-ikuspegia txertatzea proposatzen da. Horrek eraikin horietan izaera soziala hobetzea eragingo du. Udal-araudiak baldintza berri horiek txertatzearen arrazoiak honako hauek lirateke batez ere:

1. Arautze orokorra falta da ikuspegi hau txertatuta duten etxebizitzak diseinatzeko.
2. Etxebizitzan, atsedeen hartzeaz harago, lan ere egiten da.
3. Familia-unitateetan gero eta mota gehiago daude eta beraz, berriro aztertu behar dira etxebizitzari lotuta indarrean diren estereotipo batzuk.
4. Etxebizitzak bizitzaren fase batzuei eta besteei erantzun behar die eta, beraz, aldaketa horietara egokitzeko gai izan behar du.

Horrela, genero-berdintasuna eta emakumeen eta neskatoen ahalduntzea lortzera bideratutako genero-ikuspegiko artikulua txertatzen dira. Era berean, Araudian, arlo hauek aipatzen dira: eraikuntza-malgutasuna, lekualdatzeko laguntza eskaintzen duten ibilgailuetarako eremu komunak, erabilera komunitarioko aretoak, segurtasun hobekuntzak etxebizitzaren sarbidean, inklusiorako hobekuntzak garbiketa-zikloen eremuetan, sukaldean eta abarretan.

Bestalde, Araudia ezartzearekin batera urteetan lortutako esperientziak bizikleten gela dimentsionamendu egokiari buruz edo gure Arauditik harago derrigor bete beharreko eta gaur egun oinarritzko araudien bidez araututa dauden neurriei buruz gogoeta egitea ahalbidetu digu. Hori dela eta, Araudia gaur egun egindakora egokitzeko aldatu beharko liratekeen arlo teknikoek buruz gogoeta egin dute udaleko zerbitzu teknikoek.

Adierazitako guztiarekin bat etorritik, hauek bultzatzen dira: araudiaren izendapen berriaren onarpena, genero-ikuspegia txertatzeko bertako irizpideen eta helburuen hedapena, eta zerbitzu teknikoek hobe daitezkeen edo indarrean dagoen oinarritzko araura egokitu behar diren zenbait arlo antzeman dituzten artikuluen aldaketa eta egokitzapena.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

1. artikulua. APLIKAZIO ESPARRUA


Ordenantza Durangon etxebizitzatarako edo bulegotarako egiten diren eraikin berri eta guztiz berritzen diren eraikin guztietan aplikatu behar da.

Durangoko Alde Zaharraren barnean dauden eraikinetan eta Durangoko arau subsidiarioek nahitaez kontserbatu beharreko zat ezartzen dituzten eraikinetan, etxebizitza barruan baino ez dira aplikatuko genero ikuspegiaren inguruko helburuak eta txertatze-irizpideak..

Lehendik dauden eraikinetako esku-hartzetan ezingo dira murriztu ordenantza honek jasotzen dituen betebeharrak.

2. artikulua. DEFINIZIOAK

- **Bizitegi erabilerako eraikina:** pertsona bat edo pertsona multzo bat jarraituki bizitzeko eraikina da. Ordenantza etxebizitzatarako erabiltzen diren eraikin guztietan aplikatu behar da, Durangoko hiri-plangintza orokorrak (gaur egun arau subsidiarioek) zer kategoriatan sailkatzen dituen gorabehera: familia bakarrarentzako edo bi familiarentzako etxebizitza bereizietan, familientzako etxebizitza bereizietan, errenkadan dauden familia bakarrarentzako etxebizitzetan eta etxebizitza kolektiboetan edo blokean daudenetan.
- **Bulegotarako eraikinak:** erabilera tertziariora bideratutako eraikinak dira; nagusiki finantza kudeaketan, salmentan, administrazio kudeaketan eta kudeaketa teknikoan jarduteko eraikina da, eta jardunaren emaitzak paperezko euskarrietan, euskarri informatikoetan eta ikus-entzunezko euskarrietan gordetzen dira. Besteak beste, honako zerbitzu hauek ematen dituzte han: finantza bitartekaritza, merkataritza, bidai agentziak, aseguru etxeak, higiezin agentziak, informatika, makineria alokairua, zuzenbide eta zerga arlokoak, zerbitzu teknikoak, publizitate agentziak...
- **Oin berriko eraikina:** hutsetik hasita egiten den eraikina da, Eraikuntza antolatze azaroaren 5eko 38/1999 Legeko 2.2. artikulua ezartzen duenarekin bat.
- **Eraberritze integrala:** Guztiz berritzea eraikinak erabat aldatzeko lanak egitea da, Eraikuntza antolatze azaroaren 5eko 38/1999 Legeko 2.2. artikulua ezartzen duenarekin bat, lanek egiturazko sistema osoan eragina dutenean edo haien helburua eraikin osoaren berezko erabilerak aldatzea denean.
- **Begiratokia:** beiraz edo pertsianaz itxitako eta teilatutxo batez estalitako balkoia da, baita hainbat solairutako eraikin bateko beiraz hornitutako edozein terraza edo balkoi ere.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

- **Galeria:** beiraz itxitako korridorea da, etxebizitzetako barnealdeko gelak argitzeko. Bere fondo edo zabalerak ez du ahalbidetzen gainerako etxebizitzaren egonleku independente modura eratzea.
- **Ingurumenari buruzko txosten teknikoa:** txosten tekniko loteslea da, eta eraikinen eraikuntzan ingurumen arloko hobekuntzak egiteko ordenantzak ezartzen dituen eskakizunak betetzen diren egiaztatze egiten da, hots, proiektuak izan ditzakeen irtenbide alternatiboak ordenantza honetan ezarritako irtenbideekiko.
- **EKT:** Eraikuntzari buruzko kode teknikoa, martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretuaren bidez onartu zuten; halaber, beronen aldaketak (1675/2008 ED, urriaren 17koa, 173/2010 ED, otsailaren 19koa, 410/2010 ED, martxoaren 31koa, 8/2013 Legea, ekainaren 26koa).
- **EEE:** Eraikinetako energia erabileraren eraginkortasunari buruzko ziurtagiria eraikina energia arloan kalitatekoa dela adierazteko agiria da eta bai eraikinen diseinua eta bai eraikuntza hartzen ditu kontuan, betiere, eraikinetako energia erabileraren eraginkortasunerako oinarritzeko prozedura onartzen duen, apirilaren 5eko 235/2013 Errege Dekretuak ezartzen duenarekin bat etorritik (aurrerantzean 235/2013 ED).
- **Zabor gela** edukiontziak gordetzeko eraikineko gela da, eta edukiontziak honako hondakin hauek botatzeko erabiltzen dira: beira, papera eta kartoia, ontziak eta metala, hondakin organikoak, eta askotarikoak eta bestelakoak. Hasiera batean, helburua erreserba modukoa izatea da eta han edukiontzien biltegi bat egitea, eraikuntzari buruzko kode teknikoak ematen duen definizioarekin bat. *Zabor gela* erreserbarako gune batek ordezkatzeko, betiere, EKTren DB-HS-2ren baldintzak betetzen baditu.
- **Durangoko Planeamenduko Ordezko Arauak:** Behin betiko onartuak Foru Arau hauen bidez: 676/2003, irailaren 12koa eta 76/2005, urtarilaren 14koa. Testua BAOren 77. zenbakian argitaratu zen 2005eko apirilaren 25ean. Hala dagokionean, Arau Subsidiarioak ordezkaturat jo daitezke Hirigintza Antolamenduen Plan Orokorra onartutakoan.


3. artikulua.- NAHITAEZ BETE BEHARREKO GUTXIENEO BALDINTZAK

Durango etxebizitzatarako edo bulegoetarako egin nahi diren eraikinek Ordenantzak ezartzen dituen irizpideak bete behar dituzte.

Eraikina osatzen duen etxebizitza bakoitzak bete behar ditu etxebizitzatarako erabiltzen diren eraikinen diseinuan eta eraikuntzan nahitaez bete beharreko gutxieneko baldintzak.

Durango hirigintzako plangintza orokorraren arabera, udalerrian eraikitzen edo berritzen diren etxebizitzak bizigarritasun-baldintzek babes ofizialeko etxebizitzetarako erkidegoko araudiak ezarritako diseinu-baldintzak bete behar dituzte.

Horregatik, artikulua diseinu-baldintza horiekin bat ez datozenean, Ordenantza



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

hau aplikatuko da salmenta libreko etxebizitzaren edo udal-etxebizitza tasatuen diseinuan, baina babes ofizialeko etxebizitzaren diseinu-baldintzak aplikatu ahal izango dira babes-araubide hori dutenetan edo erkidegoko etxebizitza tasatuak direnean.

Babes ofizialeko etxebizitzak diseinatzeko baldintzak osagarri gisa aplikatuko dira udal-ordenantzan zehaztuta ez daudenean.

4. artikulua.- ERAIKINAK DISEINATZEA

Eraikinak egiteko baimena eskatzeko aurkezten diren proiektu arkitektonikoek, memoriaren eta planoen bidez, ondoko artikuluek INGURUMEN ARLOKO HOBEKUNTZAK ETA GENERO IKUSPEGIA TXERTATZEARI buruz ezartzen dituzten irizpideak betetzen dituztela arrazoitzea behar dute, behar bezala.

Arrazoibidearen edukia zehaztu egin behar da, bideratzeko aurkezten den proiektua oinarritzko proiektua edo lanak egiteko proiektua den.

Betiere, oinarritzko proiektuari buruzko oroitidazkiak proiektuak Ordenantzak ezartzen dituen irizpideak betetzen dituela arrazoitzeko atal bat ekarri behar du berariaz.

Lanak hasi aurretik haiek egiteko aurkezten den proiektuak Ordenantzak ingurumen arloko hobekuntzak egiteko edo genero ikuspegia txertatzeko ezartzen dituen elementuak eta sistemak azaldu eta kokatzen dituen informazio xehe osagarria ere ekarri behar du.


Lanak egiteko baimena haiek egiteko proiektuaren bitartez bideratzen bada zuzenean, proiektuak oinarritzko proiektuari eta lanak egiteko proiektuari buruz aipatutakoa ekarri behar du.

Onar daitezke ordenantza honetan jasotzen ez diren irtenbideak, betiere, ordenantzaren diseinuaren inguruko helburu orokorrak biltzen badituzte. Proiektuak irtenbide alternatiboak jasotzen baditu, Ordenantzaren aplikazio esparruan dauden eraikinetan lanak egiteko baimena eman edo/eta lanak egiten hasteko baimena eman aurretik, Plangintza Iraunkorreko arloari atxikitako udal teknikari batek INGURUMENARI BURUZKO TXOSTEN TEKNIKOA egin behar du, proiektuak Ordenantzak ezartzen dituen helburuak betetzen dituela arrazoitzeko aipatutako irtenbide alternatiboen bitartez.

Ordenantzak ezartzen duen baldintzaren bat betetzen ez bada, proiektua hobetu edo aldatzeko eskatu behar zaio dagokionari.

Ordenantzak ezartzen dituen baldintzak betetzen dituztela-eta, lanak egiteko baimena lortu bai baina proiektuarekin bat ez datozen lanak eginez gero, ez da emango baimenik eraikina lehenengoz erabiltzeko, betiere, aldaketa hauek ez badituzte biltzen ordenantzaren diseinuko helburuko orokorrak. Halakoetan, epe jakin bat ezarri behar da, behar bezala arrazoituta, baimendutakoaren kontrakoak diren ezaugarriak zuzentzeko.

Proiektuaren jasangarritasuna neurtzeko zigilu, bereizgarri eta homologazio aitorturen bat lortzeak, salbuetsi egingo du proiektua ingurumen arloko helburu eta irizpideen gaineko artikuluek justifikatu behar izatetik, salbu eta bizikleta-aparkaleku eta zabor gelarako jarritako esparrua. Eta genero ikuspegia txertatzeko helburuak eta irizpideak bete behar ditu.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

5. artikulua.- DISEINUAREKIN LOTUTAKO HELBURU OROKORRAK

Ingurumena hobetzeko ikuspegitik, ordenantzak arautzen dituen eraikinak diseinatu behar dira etxebizitza berrien orientabidea egokia izateko moduan; eguzkitik babestu, beroa irabazi eta beharrezko energia kantitatea mugatzeko sistemen bidez, energia aurrezten duten elementuak erabiliz eraiki behar dira; etxebizitza berriek behar bezala aireztatuta egon behar dute; hondakinak gaika biltzeko eremuak izan behar dira, errazago birziklatze aldera; bizikleten aparkalekuen eremuak, aire, berokuntza eta ur instalazioek energia aurreztu behar dute; eta energia berriztagarriak erabili behar dira.

Genero ikuspegia txertatzeko ikuspuntutik, ordenantza honetan sartzen diren eraikinak diseinatu behar dira etxebizitza berriek atsedenez haratago helburuak bete ditzaten hau da, bizitzaren etapa ezberdinei erantzun behar diete eta familia unitate eredu ezberdinei egin behar diete aurre.

Etxebizitzak diseinatzean, askotariko espazio aldagarriak sortzeko saiakera egin behar da, askotariko jarduerak aldi berean egin ahal izateko. Horretarako, gelek, ahal dela, antzeko azalerak izango dituzte, ahalik eta handienak. Geletan ahalik eta malgutasun handiena izatea izango da horren helburua eta beste erabilera batzuk ere ahalbidetuko dituzte; adibidez, lanerako lekua, egongela, eta abar.

Partekatzen diren espazioek espazio aldetik kalitate hobia izan dezaten eta hala, espazio komunitarioak sortzea sustatzeko, hirigintzako eraikigarritasunerako ez dira aintzat hartuko beheko solairuan dauden etxebizitza-eraikinetako elementu komunak; hala nola, ataria, sarbideak, denek erabiltzeko gela, harremanetarako espazioa, bizikletak gordetzeko gela, lekualdatzeak egiten laguntzeko gauzak gordetzeko gela, hondakinak kudeatzeko erreserba-espazioak edo instalazio komunetako gelak.

INGURUMENA HOBETZEKO HELBURUAK ETA IRIZPIDEAK


6. artikulua. ENERGIA AURREZTEKO ERAIKUNTZA ELEMENTU BEREZIEN DISEINUA

6.1. artikulua.- EGUZKITIK BABESTEKO ELEMENTUAK

Hegoaldera, hego-mendebaldera eta mendebaldera ematen duten eraikineko geletan sartzen den eguzkiaren intentsitatea doitzeko itzaleztatze sistemak erabili behar dira.

Horretarako, beira bereziak, eguzki oihalak, eguzki babesak, doitu egin daitezkeen pertsianak, brise-soleilak... erabil daitezke. Doitu egin daitezkeen pertsianak erabiliz gero, kaxa behar bezala jartzea ziurtatu behar da, airea eta zarata ez iragazteko eta horren ondorioz arazorik ez izateko.

Eguzkitik babesteko sistema onartu aurretik, Udalak egokia den aztertu behar du, kasuan kasuko orientabidearen arabera.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

6.2. artikulua.- ENERGIA-ESKAERA MUGATZEKO ELEMENTUAK

Ordenantzak arautzen dituen eraikinak diseinatu behar dira eraikuntzari buruzko kode teknikoak beharrezko energia kantitatea mugatzeari buruz finkatzen dituen helburuak lortzeko moduan.

Durangoan eraikitzen diren etxebizitza berriek energia eraginkortasunaren ziurtagiria izan behar dute, gutxienez, C letrako kalifikazioarekin, bai CO2 isurketei dagokienez bai energia primarioaren kontsumoari dagokionez.

Lanak egiten hasteko baimena eman aurretik, diseinatutako eraikineko energia erabilera eraginkorra delako ziurtagiria aurkeztu behar da, 235/2013 Errege Dekretuak aipatzen dituen definizioarekin eta eskakizunekin bat, ziurtagiriak erregistratuta egon behar du Autonomia Erkidegoko energia eraginkortasunaren ziurtagiriaren erregistroan.

Ordenantzak arautzen dituen etxebizitzatarako eraikinak diseinatu behar dira etxebizitza berrietako egongelek ahalik eta neurri handienez hegoaldera emateko moduan; logelak eta sukaldeak, berriz, hotzagoak eta ilunagoak izan daitezke. Etxebizitza blokeetan, solairu bereko etxebizitzak antolatu behar dira batzuen eta besteen orientabidea orekatuta egoteko moduan.

Balkoidun eremuak eta terrazak beiraz itxi eta begiratokiak eta galeriak sortzeko sistemen bidez, kuxin termikoak sortuz gero etxebizitzetan sartzen den bero kantitatean hobekuntza pasiboak egiteko, kuxinok ez dira hartu behar azalera eraikitzat, udal plangintzarako arau subsidiarioen arabera eraikuntza araubidearen helburuetarako. Horretarako, beroa biltzeko baliagarriak izan behar dute, eta ekialdera, hegoaldera eta mendebaldera eman behar dute; eta diseinatu behar dira guztiz aireztatu eta aurrealdea itzaleztatzeko moduan, udan bero gutxiago irabazteko.

6.3. artikulua.- AIREZTATZEKO ELEMENTUAK


Ordenantzak arautzen dituen eraikinak diseinatu behar dira behar bezainbat aireztatzeko aukera izateko moduan. Ahal dela, eraikinak aireztatzeko sistemak gurutzatua izan behar du; hau da, bi alde aurrez aurre edo 90 gradu angelua edo txikiagoa eratuz eraiki behar dira, aireak zirkulatu egiten duela eta gurutzatu egiten dela ziurtatzeko.

Dena dela, lanak egiteko proiektuak aireztapen sistemaren egokitasuna arrazoitu behar du, beharrezko kalkuluen berri emanez, eraikuntzari buruzko kode teknikoko DB-HE-3 oinarritzko dokumentuarekin bat.

Komenigarria da EKTk eskaturiko aireztatze mekanikoak aire hartzeko eta botatzeko sistema izatea, hau da, beroa berreskuratzea ahalbidetzen duena.

6.4. artikulua.- KANPOKO AROTZ LANA

Ezin da egin, erabiltzen den materiala dela-eta, zubi termikoa sortzen duen kanpoko arotz lanik, eta kanpoko arotz lan guztiak zubi termikoaren haustura izan behar du.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

Kanpoko arotz lana, gutxienez, bi beirak eta aire ganbera batek osatu behar dute; beirek 4 mm lodi izan behar dute gutxienez, eta aire ganberak, 6 mm. Hobekuntza akustikoak egite aldera, beirek lodiera ezberdina izan behar dute, eta, hortaz, beirak 4 + 6 + 6 mm lodi izan behar du gutxienez.

Pertsiana kaxak beroaren aurka isolatu behar dira.

7. artikulua.- HONDAKINAK BIRZIKLATZEA

Banaka egiten diren familia bakarrarentzako etxebizitzek ez dute bete behar artikuluko honek dioena, baina bai, ordea, multzoka egiten diren familia bakarrarentzako etxebizitzek eta errenkadan dauden familia bakarrarentzako etxebizitza atxikiek.

Etxebizitza berriek hondakinak bertan biltzeko eremuak izan behar dituzte. Eremuok behar adina handiak izan behar dute, eta sukaldean, esekilekuan edo berariaz horretarako egokitutako gela batean egon behar dute, han sortzen diren hondakinak bost multzotan bereizteko.

Aplikatu beharreko araudiak etxebizitzari buruz ezartzen duen gutxieneko programak azalera jakin bat xedatzen du, eta, hondakinak bildu eta ateratzeari buruzko HS-3 oinarritzko eskakizuna betetze aldera, sukaldeen, esekilekuen, arropa esekitzeko terrazen edo hondakinak bertan biltzeko gela gutxieneko azalerak programak xedatzen duena baino 0,30 m² handiagoa izan behar du. Hondakinak bertan biltzeko gela inola ere ezin da jarri atsedean hartzeko geletan (egongela, jangelan, logela batean...).

Babes ofizialeko etxebizitzetan, daitekeena da eskakizun hori ez betetzea, etxebizitzaren gehieneko azalera erabilgarria gairatzea badakar.

Etxebizitzarako eta bulegotarako eraikinek *zabor gela* izan behar dute.

Zabor gelak eraikinaren zoru pribatuan egon behar du eta ur hartunea eta ur beltzen udal sarearekin lotutako isurbidea izan behar du, eta, zaborra kanpotik biltzeko, kokatu behar da eraikuntzari buruzko kode teknikoko DB-HS oinarritzko dokumentuko 2.1.1. atalak xedatzen dituen baldintzak betetzeko moduan.


Zabor gela inola ere ezin da izan 2,20 m baino txikiagoa. Hain zuzen ere, honako formula honen bidez kalkulatu behar da:

$$S = P \times 0,154$$

S erreserba eremuaren azalera da, eta P,

- o eraikina etxebizitzarako erabiltzen bada, han bizi ohi direnen kopurua, bi pertsonarentzako logelen kopurua bider bi gehi pertsona bakarrarentzako logelen kopurua eginez kalkulatuta;
- o eraikina bulegotarako erabiltzen bada, han lan egin ohi dutenen kopurua, lan egiteko erabil daitekeen 20 m²-ko azaleran pertsona bat aritzen dela joz kalkulatuta.

Hori guztia gorabehera, zabor gelak 4 m² izan behar du gutxienez.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

8. artikulua.- BIZIKLETAK APARKATZEKO GELAK

Etxebizitza kolektiboen eta bulegoen eraikinek bizikletak aparkatzeko gela bat edo zenbait izan behar dituzte, eraikinei lotutako lurzoru pribatuan.

Eraikinaren barnean kokatutako esparruak beheko solairuan edo sotoan kokatuta egon daitezke, baina EKTko DB-HS2k zabor-geletarako adierazitako kanpoarekiko komunikazio-baldintza berberak izango dituzte.

Eraikinetik kanpo beste irtenbide batzuk ere onar litezke, horri zerbitzua emango dietenak, betiere, modu justifikatuan, aurreko egoera bete ezin denean. Aterpea emango zien bizikleten edukiera bete beharko da eta bizikletak aparkatzeko eta lotzeko beharrezko elementuak eduki behar dira. Gainera, estalkia eta sarbide-puntua kontrolatuta eduki beharko du.

Egoitza-eraikinetan, esparruen batuketaren guztizko edukierak etxebizitza bakoitzeko 1,6 bizikletari aterpea eman beharko dio (bizikleta kop = 1,6 x etxeb. kop.)

Bulegoetako eraikinetan, esparruen batuketaren guztizko edukierak bulegoetako 50 m² erabilgarri bakoitzeko 1 bizikletari aterpea eman beharko dio.

Gelaren azalerak edo gela guztien azalaren baturak izan behar du 1,15 m² bider aparkatu beharreko bizikleten kopurua eginez lortzen den emaitzaren baliokidea.

Gelan edo geletan sartzeko ateak gutxienez 90 cm zabal izan behar du, eta behar adina argi hartune egon behar dira.


Eraikineko garajeen aparkatzeko eremu itxiak badaude, bizikletak aparkatzeko gelan edo geletan aparkatu beharreko bizikleten kopurua txikiagotu daiteke, eremu itxien kopuruaren adina.

9. artikulua.- ERAIKINETAKO INSTALAZIOETAN ENERGIA AURREZTEA

9.1. artikulua.- ARGIZTAPEN NATURALA

Ordenantzak arautzen dituen etxebizitzatarako eta bulegotarako eraikinetan, bizilagun guztiek erabiltzen dituzten eskailerak diseinatu behar dira egunez argi naturala bai goitik edo bai aldeetatik eta patioetatik sartzeko moduan. Gainera, zuloak eskailera modu natural batean aireztatzeko ere erabili behar dira, eta, horretarako erabiltzen badira, tamaina argi naturala sartzeko zuloak izan behar dutenaren heren bat izan daiteke.

Eskailera modu naturalean argiztatuz gero, bai kaletik edo bai patiotik, solairu bakoitzeko zuloak metro koadro bat izan behar du gutxienez, behekoak izan ezik, saltokitarako erabiltzen bada.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

Argi zuloen bidez, goitikako argiztapena eta aireztapena gehienez bost solairu dituzten eraikinetan bakarrik instala daiteke. Hori eginez gero, solairu bakoitzeko argi zuloak izan behar du eskailera kaxaren solairu bakoitzeko tamainaren bi heren baino handiagoa. Erdiko zuloak 0,80 m zabal izan behar du gutxienez.

9.2. artikulua.- ARGIZTATZEKO INSTALAZIOAK

Ordenantzak arautzen dituen eraikinetan, bizilagun guztiek erabiltzen dituzten eremuak argiztatzeko instalazioetan, bizilagun guztiek erabiltzen dituzten eremuetan eta aparkatzeko lokaletan presentzia sumatzen duten etengailuak izan behar dira.

Etengailuak paratu behar dira han-hemenka, argiak banaka-banaka pitz daitezen, behar izan ahala. Ordu jakin batzuetan (gauez) bakarrik funtzionatzeko moduan programatu behar dira, eta tenporizadorea izan behar dute, itzali egiten direla ziurtatzeko. Edonola ere, bonbillek kontsumo txikikoak eta errendimendu handikoak izan behar dute.

Eremuren bat lanpara fluoreszenteen bidez argitzen bada, ez da jarri behar presentzia sumatzen duen etengailurik, eta lanparak itzaltzeko ordua programatzeko tenporizadorea izan behar da.

9.3. artikulua.- BEROKUNTZA INSTALAZIOAK

Etxebizitza bakoitzeko berogailuek, gutxienez, erregulatu egin daitekeen termostato bat izan behar dute, etxebizitzan ordu bakoitzean zer temperatura egin behar duen programatzeko, han bizi direnen beharren arabera.


Bulegotarako eraikinetako ur zirkuitu bidezko berokuntza sistema zirkuitu ezberdinek osatu behar dute, bulegoak zertarako erabiltzen diren eta nora ematen duten. Zirkuitu bakoitzak, gutxienez, erregulatu egin daitekeen termostato bat izan behar du, berotzen dituen geletan ordu bakoitzean zer temperatura egin behar duen programatzeko, haiek erabiltzen dituztenen beharren arabera.

Araudi bidez ezarritakoez gain, sukaldeetako eta komunetako berogailuetan ere instalatu behar dira balbula termostatikoak, berogailu bakoitzeko emaria erregulatzeko.

Lanak egiteko proiektuak berokuntza zirkuitu guztiak zehaztu behar ditu, instalazio planoen bidez.

Etxebizitzatarako eraikinak 20 etxebizitzak baino gehiagok osatzen dituztenean, berokuntza sistemak kolektiboa izan behar du, baina banaka-banaka kontrolatzeko modukoa izan behar du. Bereiz programa daitezkeen termostatoak instalatu behar dira, eta kontagailuak urrutitik irakurtzeko instalazioak paratzeko aukera izan behar da. Hori eginez gero, eraikin osorako komuneko ur beroak zirkuitu nagusira itzultzeko sistemak instalatu behar dira, eta ur beroaren (edo aurrez berotuaren) kantitatea neurtzeko kontagailuak. Sistema ezberdinak ere baimendu daitezke, etxebizitza bakoitzeko galdara bidezkoak, baina, horretarako, arrazoitu egin behar dira eta INGURUMENARI BURUZKO TXOSTEN TEKNIKOAK onartu behar ditu, sistema nagusiak energia gutxiago aurrezteko ez badakarte betiere.

9.4. artikulua.- UR INSTALAZIOAK



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

9.4.1. artikulua.- KONTAGAILUAK

Ordenantzaren esparruko eraikin guztietan, etxebizitza bakoitzean erabiltzen den ur kantitatea neurtzeko kontagailuak izan behar dira ezinbestean, eta eremuak banatuz sortzen den lokal bakoitzean (bulego, saltoki, igerileku, lorategi... bakoitzean) erabiltzen den ur kantitatea neurtzeko kontagailuak instalatzeko aukera izan behar da.

Ur beroaren instalazioak zentralizatuak badira, kontagailu bat izan behar da etxebizitza, bulego edo lokal bakoitzean.

9.4.2. artikulua.- BITARA HUSTEN DIREN KOMUNAK

Komunetako tangek sei litro (6 l) husteko ahalmena izan behar dute gehienez ere, eta hustea geldiarazteko sistemaren bat izan behar dute, edo komuna husteko bi sistema: guztiz (6 l) husteko sistema eta neurri batean (3 l) husteko sistema.

Lanak egiteko proiektuak modelo jakina edo haren ezaugarriak zehaztu behar ditu.

9.4.3. artikulua.- TXORROTAK

Txorrota guztiek, baita dutxek ere, zurrusta hausteko edo emaria txikiagotzeko sistemak izan behar dituzte, ura aurrezteko.

Txorrota termostatikoak instalatu behar dira, dutxetan eta bainuontzietan gutxienez, eta ur beroa garraiatzeko hodiekin ahalik eta laburren izan behar dute.

Lanak egiteko proiektuak modelo jakina edo haren ezaugarriak zehaztu behar ditu.

9.4.4. artikulua.- URAK HUSTEA

Ordenantzak arautzen dituen etxebizitzatarako eraikinak diseinatu behar dira urak grabitate bidez husteko bi zirkuitu izateko moduan: bata euri urak husteko erabili behar da, eta bestea, ur beltzak eta hondakin urak husteko.


Hartuneen maila dela-eta, ezinezkoa bada urak zuzenean sare nagusira grabitate bidez hustea, urak ponpatzeko instalazioak para daitezke, zirkuitu bakoitzean.

Debekatuta dago Ordenantzak arautzen dituen eraikinetako garajeetan autoak garbitzeko garbitegiak instalatzea. Urak sare nagusira, plangintzarako arau subsidiarioek urak biltzeko ezartzen duten instalaziora hustu aurretik solidoak eta gantzak bereizteko kutxetak instalatu behar dira.

Birgaikuntzetan, aldeztu aurretik autoak garbitzeko garbitegiak dituzten garajeetan urak biltzeko duten instalaziora hustu aurretik solidoak eta gantzak bereizteko kutxak jarri aparte filtro biologiko bat ezarri behar da hustubide nagusia aurretik.

Lorategi edo berdegune pribatuak dituzten eraikin kolektiboetan, lorategiok eta berdeguneok ureztatze sistemak landare-diaren arabera izan behar du, eta ur kontsumoa ahalik eta txikiena izateko sistemaren bat erabili behar da. Sistema horrek honako ezaugarri eta elementu hauek izan behar ditu:

- Ureztatze ura neurtzeko kontagailua



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

- Landaretzaren ur beharretara egokitutako programagailuak, euria eta lurraren hezetasuna sumatzen dutenak, euriak eta hezetasunak landareak ureztatzeko beharretan eragina badute betiere.
- Isuriak detektatzekoak.
- Helmen txikiko ihinztargailuak soropiletan.
- Tantaka ureztatzeko sistema zuhaixkak dauden tokietan eta zuhaiztietan.
- Ur kantitatea erregulatu eta ura ponpatzeko tangak dituzten eraikinetan, tangen tamainak izan behar du behar bezala funtzionatzeko ahalik eta txikiena. Betiere, tangetan sartzen den ura neurtzeko kontagailu bat izan behar da.

Euri-urak aprobatzen dituzten ureztatze-instalazioek, edo igerilekuetako ura baliatzen dutenek honako baldintza hauek bete behar dituzte:


- Euri ura biltzeko sistema ura bideratzeko erretenek, lohikeria dekantatu edo iragazteko sistema batek eta ura biltegiratzeko tanga batek osatu behar dute.
- Instalazioa diseinatu behar da edateko uraren instalazioarekin nahasten ez dela ziurtatzeko eta edateko uraren hornikuntza ezin kutsatzeko moduan. Segurtasun bikoitzeko sistemak erabili behar dira, euri ura edateko urarekin ez nahasteko.
- Euri urak husteko sarearekin edo sistemarekin lotutako gainezkabidea izan behar du, eta udal hornikuntza saretik elikatze sistema izan behar du, euria lorategiak eta berdeguneak urte osoan ureztatzeko nahikoa ez denerako. Biltegitratutako uraren maila % 10etik beherakoa denean bakarrik erabil daiteke sistema hori, eta tangaren edukiera osoaren % 20 soilik bete daiteke haren bidez. Lotune horrek bere kontagailua izan behar du.
- Euri ura biltzeko tangak behar bezain irazgaitza izan behar du barnealdean, biltzen den uraren kalitatea alda ez dadin, edo, bestela, dentsitate handiko polietilenoaz egin behar da.
- Tanga diseinatu behar da osasun egoera zain daitekeela ziurtatzeko moduan.
- Beharrezkoa izanez gero, tangak ura ponpatzeko sistema bat izan behar du, egiten diren irteerak urez behar bezala hornitzeko.
- Euri urak biltzeko tangak 10 litro ur bildu behar ditu gutxienez lorategiaren edo berdegunearen metro koadro bakoitzeko.

9.5. artikulua.- INSTALAZIO DOMOTIKOA

Komeni da instalazio domotiko osagarri bat instalatzea, gutxienez, etxebizitza edo bulego bakoitzeko energia erabilera eraginkorra dela kontrolatzeko.

10. artikulua.- ENERGIA BERRIZTAGARRIEN INSTALAZIOAK

10.1. artikulua.- EGUZKI PLAKA TERMIKOAK



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

Energia aurrezteko eta energia berriztagarriak erabiltzea bultzatzeko, eraikinek ura berotzeko eguzki energia termikoa hartzeko instalazio bat izan behar dute. Biltzen duten energiaren gutxieneko kantitateak eraikuntzari buruzko kode teknikoko HE 4 atalak dioenarekin bat etorri behar du.

Eguzki plaka termikoek behar bezala bat egin behar dute eraikinaren bolumenarekin, eta kokatu behar dira plangintzarako arau subsidiarioek baimentzen duten ingurukari maximo teorikoaren mugak ez gainditzeko moduan. Estalkiko hegalean gainean jartzen badira, estalkiaren makurdura maila bera izan behar dute eta ezin dira irten baimendutako plano maximotik.

Arazoirik izanez gero, eguzki plaka termikoak kokatzeko bide bereziak onar daitezke. Horretarako, proiektuak grafikoen bidez azaldu behar du nola bat egingo duen instalazioak eraikinaren bolumenarekin.

Lanak egiteko proiektuak instalazioaren diseinu eta diseinua arrazoitzeko kalkulu zehatzen berri eman behar du. Ur instalazioaren planoek eguzki energia termikoa biltzeko instalazio guztia agertu behar dute: energia nola bilduko duen, nola metatu eta banatuko duen eta, baldin badago, zer sistema euskarri izango den.


Ur bero sanitarioako gutxieneko eguzki-ekarpena partzialki edo guztiz ordezkatu ahal izango da beste energia berriztagarri batzuen instalazio alternatiboaren bidez, elkarrekin sortutako prozesuen bidez edo eraikinaren instalazio termikoarenak ez diren bero-berreskuratzaileen instalaziotik datozen hondakin energia iturrien bidez.

Ordezkapena egin ahal izateko, dokumentu bidez justifikatu beharko da honako hau: instalazio alternatiboaren eta haren sistema osagarri guztien karbono-dioxidoaren igorpena berdina edo baxuagoa izango dela ur bero sanitarioaren eskari osoari -edo beharrezkotzat hartuz gero, ur bero sanitarioaren eskariari ere- erantzuteko, bestelako sistema honekin lortuko litzatekeena baino; lehen mailako energia ez-berriztagarriaren kontsumoa dagokion eguzki-instalazio termikoarekin eta alderatutako eskarirako laguntzazko auxiliar gisa hartu beharko den erreferentziazko sistemarekin.

10.2. artikulua.- EGUZKI PLAKA FOTOVOLTAIKOAK

Bulegotarako erabiltzen diren eraikinetan, 4.000 m² baino gehiago badaude eraikita, eguzki energia prozedura fotovoltaikeen bidez bildu eta eraldatzeko sistemak ere instalatu behar dira, eraikuntzari buruzko kode teknikoko HE 4 atalak dioenarekin bat.

GENERO IKUSPEGIA HELBURUAK ETA IRIZPIDEAK TXERTATZEA



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

11. artikulua: ETXEBIZITZEN ERAIKINA

11.1. artikulua: TRASTELEKU INDIBIDUALAK

Etxebizitza guztiek izan behar dute trasteleku bat etxebizitzaren eranskin gisa eta gutxienez, 4 m²-ko azalera erabilgarria izan beharko du.

Etxebizitzei erantsitako trasteleku gisa onartuko dira horretarako bakarrik bideratutako lokalak, etxebizitzei txertatzeko aukerarik ez dutenak, eta eremu komunetatik edo eraikinaren kanpoaldetik bide irisgarrietatik, segurtasun-pertzepzioarekin, zuzeneko sarbidea dutenak, betiere, segurtasun-pertzepzioa badituzte. Hortaz, pizgailu automatiko bat jarriko da presentzia-detektagailu edo argiztatze iraunkorreko sistema baten bidez.

Trastelekuak beheko solairuan edo teilatupean egotea gomendatzen da, hala argiztapen eta aireztapen hobea izateko. Trastelekurako sarbidea aparkatzeko plazatik badago, bi elementuek etxebizitza berari lotuta egon beharko dute.

Trasteleku guneko sarbidea atzealdean dagoenean, etxebizitzara sartzeko segurtasunari buruzko baldintzak bete beha dira.

11.2. artikulua: ERAIKITZEKO MALGUTASUNA

Etxebizitza diseinatzean, espazio hezeek (sukaldea, arropa garbitzeko zikloa eta bainugelak) ahal dela, instalazio bertikal hezeen patiotxoak partekatu beharko dute etxebizitzaren gainerako atalen malgutasuna bermatze aldera.


Instalazioen banaketa tabikeak baino lehen jarritako sabai aizunaren edo zoru jarraituaren bidez egingo da.

11.3. artikulua: LEKUALDATZEN LAGUNTZEKO IBILGAILUAK GORDETZEKO ESPAZIO KOMUNA

Etxebizitza bakoitzean, 0,35 m²-ko espazio bat eduki beharko da beheko solairuan, lekualdatzen laguntzeko ibilgailuentzako; adibidez, haur-kotxeak, erosketetarako orgatxoak, motorra duten gorpildun aulkiak edo antzeko elementuak.

Espazio hori ordenantza honetan aurrez ikusitako bizikletentzako gelaren zati izan ahal izango da gela horri aipatutako espazio hau gehituta, betiere beheko solairuan badago.

Zabor gela, aldi batean, biltegi gunearen osagarri moduan erabil daiteke, betiere, erreserbarako gune moduan mantentzen bada. Aldi baterako erabilera honek ez du



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

salbuesten artikulua honen lehenengo paragrafoan jasotzen den obligazioa bete behar izatetik.

11.4. artikulua: DENEK ERABILTZEKO GELAK

Etxebizitza-erakinekin denek erabiltzeko gela bat izan beharko dute 20 etxebizitza edo gehiagoko sustapenetan.

Gela horren gutxieneko azalera 25 m²-koa izango da eta 1 m² gehitu beharko zaizkio etxebizitza bakoitzeko lehen 20 etxebizitzetatik aurrera.

Gela hori lur-arrasetik gorako edozein solairutan jarri ahal izango da, baita teilatupean ere. Eraikineko leku komunitatik sartu ahal izango da bertara eta bilerak egiteko, jolaserako edo ikasteko erabili ahal izango da. Debekatuta daude jarduerak ekonomikoak.

Gela hau komunitateko txoko gisa erabili nahi bada, ostalaritzako jardueren udal ordenantza beharko du espazioak eta beheko solairuan egon beharko du nahitaez.

Espazio komunitatik ikusteko moduan egon behar du gela honek eta, beraz, itxitura gardenak izango ditu.

Gela honen ordean, harremanetarako espazio bat jar daiteke beheko solairuko ataripean, hiri-antolamenduko plan orokorreko arau subsidiarioetan hala jasota badago.

11.5. SEGURTASUNA ETXEBIZITZAKO SARBIDEAN


Atariak kalera ematen duen fatxadaren edo erabilera publikoko espazio nagusira ematen duen fatxadaren, (jendea ibiltzen den lekuan) jarriko dira; edo bestela, horietatik ondo ikusten diren alboetan. Ezingo dira bigarren mailako erabilera kale edo espazioetan jarri, ez eta jenderik ibiltzen ez den atzealdeetan edo zaku-hondo esaten zaienetan ere.

Atariak bertara sartzeko espazio publikoaren maila berean jarriko dira edo, $\pm$ 0,50 m baino malda txikiagoarekin. Fatxadaren horma-atalean edo gehienez 0,50 m-ko atzeraemangunearekin. Erabilera publikoko zortasuna duten portxerik balego, ez da fatxadatzat hartuko kanpoko zutabeen lerroa, baizik barnealdeko horma-atala.

Ahal dela, ez da ataria ikustea eragozten edo zailtzen duen elementurik jarriko (hormak, tolesak, habeak...); ez kanpoan, ez barruan.

Atariaren fatxada gardenak izango da haren azaleraren, gutxienez % 75ean eta kanpotik barrualdea eta barrutik kanpoaldea argi ikusteko aukera emango du.

Argiztapen egokia izango dute barruan zin kanpoan, hala, erabiltzaileen segurtasuna bermatzeko; batez ere gauez. Instalazio horrek automatikoki pizteko



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

sistema izan beharko du presentzia detektatzeko gailuen bidez edo bestela, etengabeko argiztapena.

11. 6. artikulua: SEGURTASUNA GARAJEETAKO SARBIDEAN ETA BARNEALDEAN

Ibilgailuen sarbideak atea atzeraeramatea derrigortzen duen itxaron-eremua duten garajeek presentziazko detektagailu bidez edo argiteria iraunkor bidez pizte automatikoko sistema izango dute atzeraeramandako eremu horretan.

Sarbide horiek ispiluak izango dituzte bi aldeetan oinezkoentzako ibilgailuen irteera seguruagoa bermatzeko eta oinezkoek ikusi ahal izateko ibilgailuren bat dagoen garajetik irteten.

Garajeen barnean, argiteria iraunkorra egongo da eta luminantza-balioak sektoreko araudiak eskatutakoak izango dira. Gainera, argiteria hori sendotzeko sistema bat ere egongo da presentziazko detektagailuen edo sakagailuen bidez.

Igogailuetarako edo eskaileretarako sarbideko atariek, eta korridoreek eta eskailerek, presentziazko detektagailu bidezko eta argiteria iraunkor bidezko pizte automatikoko sistema izango dute


12. artikulua: ETXEBIZITZAREN BARRUALDEA

12.1. artikulua: BILTEGIRATZEKO EREMU KOMUNA ETXEBIZITZAREN BARRUAN

Etxebizitza guztiek izango dute barruan biltegiratzeko espazio bat gehituta.

Biltegiratzeko espazio bat edo batzuk izatea bermatu beharko da; logela bakoitzeko modulu bat, arau subsidiarioetan jasotako etxebizitzaren bizigarritasun-baldintzetan eskatzen diren armairuentzako espazioei gehituta.

Modulua armairuarentzako espazio baten baliokidea izango da: 0,5 m aurrealdea, 2,10 m garaiera eta 0,6 m sakonera duena. Biltegiratzeko espazio horiek sarreran edo pasatzeko guneetan jarri beharko dira. Eremu horiei gehitu ahal izango zaizkie etxebizitzaren bizigarritasun-baldintzetan armairuetarako eskatzen diren espazioak; hortaz, eremuok ezin dira logela barruan egon.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

Biltegitratzeko modulu gehigarrien ordez, gutxienez 3,6 m²-ko azalera eta gehienez 5 m²-koa duen eremu bat jarri ahal izango da. Eremu horretara ezingo da logelen barnealdetik sartu.

Etxebizitzan bizigarritasun-baldintzetan armairuetarako eskatzen diren espazioak ezingo dira ordeztu.

12.2. artikulua: EGONGELA

Bi logela baino gehiago edo 65 m² baino gehiago dituzten etxebizitzetan, egongela-jangela-sukaldea pieza jarri ahal izango da, baldin eta etorkizunean egongela eta sukaldea bereizteko aukerarik badago.

Horrelakoetan, proiektuan banaketako lerro teorikoa sartu behar da eta bi piezek bete behar dituzte bizigarritasun-baldintzak.

Sukaldea-egongela-jangela espazio bakarra bada, sistema bat jarri beharko da lanerako eremuarekiko banaketa bisuala egiteko, beirazko horma mugikorra, gidaridun ateak, gortina handiak edo antzekoak jarrita.

12.3. artikulua: ARROPA GARBITZEKO ZIKLOA

Etxebizitza guztiek izan beharko dute espazio bat arropa garbitzeko ziklorako (arropa zikinak pilatzeko, garbitzeko, lehortzen jartzeko, lisatzeko eta tolesteko).

Eremua hauek osatuko dute: esekitokiak (arropa eraikinaren barneko patioan, uharte-patioan edo kanpoaldeko fatxadan esekitzeko) eta garbiketa modulu bat.


Garbiketa-modulu deitzen zaio esekitokitik lekurik hurbilenean 1,2 m-ko aurrealdea, 0,6 m-ko sakonera eta 2,2 m-ko altuera duenari, eta ezingo da inoiz atsedenerako lekua izan (sukaldea, komuna edo pasabidea izan daiteke).

Garbiketarako moduluan arropa garbigailua, lehorgailua eta lisagailua jartzeko instalazioak egongo dira (hargune elektrikoa eta uraren hargunea eta hustubidea).

Garbiketarako modulu hori ez baldin badago sukaldean, modulua hartzen duen lekuaren gutxienerako azalera 2,5 m² zabalduko da egonaldi horretarako eskatutako bizigarritasun-baldintzei dagokienez.

Sukaldea egongela-jangela-sukalde pieza baten zati denean, garbiketarako modulu hori ezingo da sukaldean kokatu.

Arropa garbitzeko espazio hau gune independente bakarra izan daiteke, itxita egon beharko da, aireztapen eta argiztapen naturala izango ditu eta aipatutako



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

garbiketarako modulua izango du. Gutxienez 4 m²-ko azalera izango du eta gutxienez, 1,5 m-ko zabalera.

12.4. artikulua: BAINUGELA

Etxebizitzan bainugela bat baino gehiago badaude, horietako batek sarbidea pasabide-guneetatik (korridorea, atondoa, banalekua) edo egoteko guneetatik izango du. Erabileren banaketa bermatu beharko du, ahal bada; hau da, espazio bat komuna eta konketarentzat eta beste dutxa eta konketarentzat. Komunaren eta konketaren espazioak, gutxienez 1,40 x 1,00 m izango ditu eta dutxarako eta konketarako espazioak, berriz, gutxienez, 1,40 x 1,40 m.

Bainugeletako batek 90 x 90 m-ko dutxa-ontzia ere izan beharko du.

Gauzak gordetzeko 0,03 m³-ko bolumena aurreikusi beharko da (0,3 x 0,3 x 0,7 m-ren baliokidea) Gutxienekeo dimentsioa 0,3 m-koa izango da edozein ertzetan neurtuta eta 1,40 m-ko garaieratik behera egongo da, garbiketarako elementuak gordetzeko.

12.5. artikulua: KANPOALDEKO ESPAZIO PROPIOA

Etxebizitzek balkoi edo terrazatarako espazio bat izan beharko dute, gutxienez 3,6 m²-koa. Gutxienez 2 x 1,20 m-ko neurriak dituen laukizuzen batentzako lekua izan beharko du. Neurri handiagoko espazioak izatea sustatuko da eta kanpoko espazio hori salbuetsita geldituko da hirigintzako eraikigarritasuna kontsumitzetik 5m² arte. Arropak zabaltzeko lekua horri gehitutako beste espazio bat izango da.


Etxebizitzaren barneko eta kanpoaldeko eremu horren arteko maila-desberdintasuna 15 cm-koa izango da gehienez.

12.7. artikulua: SUKALDEA

Sukaldeak diseinatzean, jangelako altzariak jartzeko adinako espazioa uztea gomendatzen da.

Sukaldearen banaketaren diseinuak bermatu egin beharko ditu, planoetan berariaz adierazita, honako elementu hauek:

- Biltegitartzeko bolumen ikusezina 0,25 m³-koa (0,6 x 0,6 x 0,7 m-ren baliokideak) eta gutxienekeo dimentsioa 0,35 m, 1,40 m-ko garaieratik beherako edozein ertzetan neurtuta.
- Lanerako gainazal finkoak, honako baldintza hauek betetzen dituztenak:
 - o Gutxienekeo azalera, guztira: 0,72 m² (1,20 m-ko aurrealdearen eta 0,60



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

m-ko sakoneraren baliokidea). Gutxieneko azalera jarraitua: 0,36 m²
(0,60 m-ko aurrealdearen eta 0,60 m-ko sakoneraren baliokidea).

o Laneko planoaren maila, 0,85-0,95 m-koa.

o Gutxieneko altura librea laneko planoan: 0,50 m.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Diru laguntzak eman daitezke eraikin zaharretako eta urbanizazio osagarrietako argi, ur, ureztatze eta berokuntza instalazioak berritzeko, ingurumen aldetik lehengoak baino hobeak badira betiere, horretarako diru laguntzak banatzeari buruz egiten den ordenantzarekin bat.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza Bizkaiko Aldizkari Ofizialean osorik argitaratu eta 15 egun geroago sartuko da indarrean.

Eraikin bat egiteko lanak egiteko baimena Ordenantza indarrean sartu ondoren eskatzen bada, Ordenantza bete egin behar da.